

Baiona, 2008ko martxoaren 1a

Irène Ithursarry  
OIHANA Ikastolako  
Lehendakari ordea

Agur t'erdi

Herri hauteskundeen karietara BAIONA BERRIA zerrendari galde zehatzak helarazi dizkiguzue.

Sortu denetik BAIONA BERRIA-k euskararen berreskurapena bere programaren muinean kokatu du. Alabainan pentsatzen dugu Ipar Euskal Herriko hiri nagusian egunero euskaraz bizitzeko aukera erreala bihurtu behar dela eta horretarako Herriko Etxeak erantzukizun handia duela.

2001eko kanpainan hizkuntza politika ausart baten beharra defenditu genuen bai eta horren gauzatzeko behar bezalako egitura eta baliabide humano nahiz ekonomikoen beharra ere.

Sei urtez, behin baino gehiagotan auzapezari galdegin diogu Euskal Konfederazioarekin bil dadin, honek Herriko Etxeei proposaturiko hitzarmena aztertzeke. Azkenik, mandatuaren bukaeran, Grenetek Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmen bat izenpetzea onartu duelarik, alde bozkatu dugu, lehen urratsa zelakoan bainan asmo ederrak ekintza bihurtu behar zirela azpimarratuz.

Geroztik deus gutti aintzinatu da Baionan eta dakizuen bezala, hain simple bezain hain indartsu litzatekeen euskararen presentzia Baionako festetako afixetan aurten ere ez da segurtatua izanen.

Gure ustez Herriko Etxeak hiru arlotan aritu behar da :

- ✓ **Euskara promozionatu** eta jendearen atxikimendua indartu, aldeko jarrera erakutsiz eta informazio kanpainak antolatuz ;
- ✓ **Hiztun kopurua emendatu**, murgiltze sistema eskaintzen duten ikasbideei sustengatuz edota herriko langileak euskalduntzeko plana bideratuz besteak beste ;
- ✓ Bizitza publikoaren alor guztietan **hizkuntzaren erabilpena bultzatu** eta areagotu, jendeari Herriko Etxearekin harremanak euskaraz burutzeko parada eskainiz.

Horrela, eta zuen galde zehatzei erantzuteko, BAIONA BERRIA-k defenditzen duen hizkuntza politikan Herriko Etxeari euskaraz zuzentzen den herritar, elkarte edota eragile ekonomiko orori idatziz nahiz ahoz euskaraz erantzuteko engaiamendua bete betean sartzen da.

Halaber politika hori arloz arlo deklinatu beharko da, hala nola gazteak hunkitzen dituzten aktibitateak, eskola denboran nahiz eskolatik kanpo, euskaraz ere garatzeko plana martxan jarri eta bistan dena lehentasunez, eskolako kirol aktibitateak.

Besterik gabe, onar itzazu lehendakari orde anderea gure agurrik beroenak

BAIONA BERRIA zerrendaren izenean  
Jakes Bortayrou